

Prentsa oharra

**Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren
arteko lankidetzari, 2018an euskararen alorrean diharduten
eragileen sustatzeko hartu erabakiak**

2018ko lankidetzarako fondoa
(Eragile jakinak hitzarmenez lotzea eta hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia)

Baiona - 2018/07/13

I. Lankidetzaz esparrua

Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntza politika arloan partaidetza bat eratu dute 2007tik hona, 2007ko otsailaren 7an formalizatu zen lehen hitzarmen-markoaren bidez. Euskararen aldeko hizkuntza politikari buruzko mugaz gaindiko lehen lankidetzaz horren jarraian, eta 2007-2010 eta 2011-2016 epealdietarako bi partaideek ebaluazio baikorra egin ondoan, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, bi erakundeen arteko lankidetzaz sendotuz eta definituz, 2017-2022 epealdirako hitzarmen-marko berri bat izenpetu zuten iaz, 2017ko martxoaren 29an.

Hitzarmen-marko hori, urtero eranskin bidez deklinatzen da, urteko lana eta Iparraldeko eragile pribatuei zuzentzen zaien diruztapen era zehaztuz, bi instituzioek elkarrekin elikatzen eta osatzen duten lankidetzarako fondoaren bidez. Aurten ere beraz, EEPk eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eragile pribatuek eramandako euskararen erabilpena eta transmisioa sustatzen dituzten proiektuak elkarrekin diruz laguntzea erabaki dute. Horretarako, 2018an, lankidetzarako fondoaz berriz eratu eta egonkortu da, 1.930.000 € ekarriaz orotara (ikus, II. puntua), bi partaideen ekarpenez.

Sustatutako arlo guzietan eta aurreko urteetan emandako ekintzen ildoari jarraikiz, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak aurten ere lehenetsuneko sostengu ekonomiko eta teknikoaz adierazi nahi izan diete hizkuntza politikaren egituratzaile diren eragileei bai eta euskarazko eskaintza iraunkorra egituratu dutenei ere, euskara transmititzeko, ikasteko, praktikatzeko eta hedatzeko molde eraginkorreetan eta egonkorreetan lan egiten baitute, baina proiektu berriak ahanzi gabe, Hizkuntza jardueraz proiektu deialdiaren bidez lagundu direnak, euskararen erabilera eta promozio dinamika berriak sustatzeko funtsezko deialdi bazen.

II. Lankidetzarako fondoaz

2018. urteko, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak eragile pribatuentzat osatu **lankidetzarako fondoaz 1.930.000 €-koaz da** (2017ko hein berekoak), bi partaideen ekarpenez:

- Euskararen Erakunde Publikoak: **1.530.000 €**,
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: **400.000 €**.

Lankidetzarako fondo hori bi dirutza multzotaz banatua da:

- **1.550.000 €**-ko dirutza multzoz: Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren arteko sustapen-lerroekin bete betean datozela ikusita, Ipar Euskal Herriko 8 eragile jakin, 2018rako balio duen **hitzarmenean** oinarriturik diruztatzen dira.
- **380.000 €**-ko dirutza multzoz: Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribatuz zuzenduko zaio **hizkuntza jardueraz Proiektu Deialdiaren** bidez. Orohar, beste eragile pribatuen diruztatzeko.

Bestalde, **Hizkuntza Jardueraz Proiektu Deialdiaren araudiari uztarturik zaion argitalpenari lotu araudi berezitua** indarrean da, euskarazko argitalpena sustatzeko modua gisa horretan arautuz. Argitalpen atala, honako sustapen-lerroetan egituratzen da:

- Euskarazko liburuaren argitaratzearen sustapena,
- Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jardueren sustapena,
- Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketaren sustapena.

III. Diru-laguntza eskaeren trataera

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuek, eragile pribatuek (dela elkarte, dela enpresa) helarazi eskaera guziak banan-bana aztertu dituzte, aitzinetik finkatu ziren eta eragileei azaldu zitzaizkien **lau irizpide nagusien** arabera:

- Eskatzailearen garrantzi estrategikoa Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileen artean eta esperientzia,
- Aurkeztutako proiektuak duen Euskararen Erakunde Publikoaren Hizkuntza Politika Proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzak onetsi Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu eta lan-lerroekiko lotura,
- Proiektuak izan dezakeen eragina, finkatu helburuei begira,
- Proiektuaren edukiaren eta aurkeztutako finantza planaren arteko egokitzapena eta auto-finantzazioa.

IV. Esleipen erabakiak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak, burutu eztabaida eta azterketa xehekatuen ondotik, jarraian zehaztutako erabakiak hartu dituzte:

IV.1. Beren jarduera linguistikoaren sustatzeko xedez, hitzarmenez lotutako eragile jakinak diruz laguntzea (1.550.000 €)

→ **496.000 €** emanen dira **euskarazko irakaskuntzan** lanean diharduten eragileen sustatzeko, horietan bereizi behar baitira honakoak:

- **Seaska federazioa** (Ikastolen federazioa: lehen mailan 35 eskola, 2. mailan 4 kolegio eta lizeo polibalente bat, orotara 3688 ikasle eskolatzen ditu ama-eskolatik lizeoara arte): **405.000 €** esleituak (= 2017) federazioa sostengatzeko euskararen erabilpena eta transmisio laguntza-ekintzetan (besteak beste eskolatik kanpo euskararen erabilpena sustatzeko helburua duten jarduerak, komunikazioa eta sentsibilizazioa, irakasleen hasierako eta etengabeko formakuntza, laguntza pedagogikoa, hezitzaileen eta irakasleen kontratazioa eta kudeaketa...).
- Irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak, sare publiko zein pribatuan euskarazko irakaskuntza sustatzeko:
 - **Ikas-Bi** (sare publikoko irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak): **40.000 €**-ko esleipena eragileak burutzen dituen irakaskuntza elebidunaren sustapen lanen laguntzeko, 2015an finkatu hitzarmen-markoarekin koherentzian, bertan Ikas Bi eta EEPren arteko partaidetza modalitateak zehaztuak baitira, Ikas Bi elkarteak irakaskuntza publikoan irakaskuntza elebidunaren sustapen eta jarraipen lanak bideratzeko, EEPn bilduak diren botere publikoek eraman politika publikoaren osagarri gisa: irekitze eta esperimendatzeko proiektuei laguntza, euskararen erabilera eta irakaskuntza elebidunaren alde burasoak laguntzea, familiei informazioa eta sentsibilizazioa, eskola jarraipena etab.

- **Biga Bai** (sare publikoko irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak): **23.000 €**-ko esleipena (= 2017), Biga Bai elkarteak sare publikoko eskola eta ikastetxeetan burutzen dituen irakaskuntza elebidunaren sustapen eta jarraipen lanak laguntzeko, EEPn bilduak diren botere publikoek daramaten politikaren osagarri gisa: irakaskuntza elebidunaren sustapena (burasoei informazioa eta komunikazioa...), irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garapena eta egituratze kualitatibo lanetan parte hartzea (irekitze eta esperimentatze proiektuak, eskola jarraipena), irakaskuntza elebidunaren defentsan burasoen ordezkatzeko eta euskararen erabilpena sustatzen duten proiektuen muntatzeko talde pedagogikoen akuilatzea.
- **Euskal Haziak** (sare pribatu giristinoko irakaskuntza elebiduneko buraso eta irakasle elkarteak): **28.000 €**-ko esleipena (= 2017), irakaskuntza pribatu katolikoan irakaskuntza elebidunaren sustapenerako eragileak eramaten duen proiektua laguntzeko, Irakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritzarekin (IKEZ/ DDEC) lotua: irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garapenaren eta egituratze kualitatibo lanetan EEP eta IKEZekin batean parte hartzea, irakaskuntza elebidunaren sustapenerako ekintzak (ate idekien antolaketa, komunikazioa), euskararen erabilera sustatzen duten ekintzak (antzerki astea ikastetxeen artean, literatura lehiaketa, ateraldiak eta gertakariak...).

→ **500.000 € helduen irakaskuntzarako:**

- **AEK** (helduei zuzendutako euskararen irakaskuntzarako formakuntza zentro federazioa): **500.000 €**-ko esleipena (= 2017), AEK-k burutu helduei zuzendutako norbanakoaren formakuntza alorrean diren irakaskuntza jardueren diruz hobeki laguntzeko: lurralde guzian hedatuak diren 16 gau eskolei laguntza eta aholkularitza tekniko eta pedagogikoa (formatzaileen kontratazioa eta kudeaketa, formatzaileen formakuntza, didaktika, ikasleen jarraipena...), ikastaldi trinkoen antolaketa, sentsibilizazio kanpainak.

→ **310.000 € emanen dira hedabideak sustatzeko**, fondoaren lehen dirutza multzo honen bidez laguntzen den euskal hedabideetako eragile bakarra (beste hedabideentzat, ikus IV.2 puntua):

- **Euskal Irratiak** (euskaraz ari diren tokiko 5 irrati federazioa): **310.000 €**ko esleipena (= 2017) izan tokiko edo programazio amankomunaren ekoizpena laguntzeko, irrati sarearen sendotze eta egituraketaren sustengatzeko (2018 sartzeko programazio berri baten moldatzea, ildo editoriala eta musika programazio buruzko lanak garatzea, Donapaleuko irrati berriak egituratzea eta sendotzea, azterketa eta gogoeta lan bat eramatea RNT irrati numerikoa gaiari buruz...) eta Euskal Irratiaren sareak abiatu irrati guzien arteko baliabide eta zerbitzuen mutualizazio elkarlana sustatzen jarraitzeko.

→ **244.000 €** emanen dira azken urte hauetan garapen handia izan duten **aisialdi** alorreko jardueren sustatzeko:

- **Bertsularien Lagunak** (bertsolaritzaren irakaskuntza eta sustapenerako elkarteak): **65.000 €**-ko esleipena (+10.000 2017 urtearekin konparatuz) lurralde guzian bertso eskolek eramaten duten bertsolaritzaren irakaskuntzaren sustengatzeko (eskolaz kanpoko jarduerak, bertso saioak eta txapelketa izan ezik), orotara 300 ikasle inguruk parte hartzen dute 19 bertso eskoletan, 36 taldetan banaturik. Azken urte hauetan, Bertsularien lagunak elkarteak eramaten dituen ekintzak garatzen joan dira (300 ikasle 2018an, 181 zirelarik 2013an)

- **Uda Leku** (euskarazko aisialdi eta egonaldi zentroak): **179.000 €**-ko esleipena (= 2017), eragileak antolatu euskarazko aisialdi jarduerak sustengatzeko (4 bilguneetan edo egonaldietan), bai eta eragilea sendotzen laguntzeko ere (4. bilgunea irekitzeko desmartxen jarraipena, begiraleei zuzendutako BAFA/AIGA ikastaro elebidunen antolaketan laguntza, eta finantzaketa arrunten optimizatzeko lanak besteak beste)

IV.2. Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia (380.000 €)

Hizkuntza jarduera proiektu deialdiari dagokienez, ezarri den diru multzoa **380.000 €**koa da, 2017ko hein berekoa. Orotara, 52 eragilek 72 proiektu aurkeztu dituzte.

Diru-laguntzen esleipena honela egituratzen da (prentsa ohar honi lotu "**2018ko Hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren Ebazpena**" izeneko dokumentuak proiektu bakoitzari esleitu diru laguntzak zehazten ditu):

- **Zerbitzu edo eskaintza iraunkor bat euskaraz egituratu duten eragileen diru-laguntzen segida:**
 - Euskarazko eskaintza egituratu duten hedabideetako eragileak: Aldudarrak bideo (web TV), Euskal Komunikabideak (Iparraldeko Hitza astekaria), Iparla Baigura Komunikazioa (Kazeta web gunea), Herria, Errobi Promotions (Radiokultura web irrati elebiduna)
 - Aisialdi arloko eragileak:
 - Garazi/Baigorriko Iparralai eta Hazparneko Soinubila musika eskolak
 - Oreka zirko eskola
 - Nautika bela eskola
 - CEMEA eta Frantsesenia: AIGA (Animatzaile Izateko Gaitasun Agiria) formakuntza elebiduna plantan emateko
 - Helduen euskalduntzea arloko eragileak:
 - Angeluko ikasleak helduen euskalduntze arloan eskaintzen dituen formakuntza jarduerentzat
 - Jakinola: elantzen.eus web gunean euskara ikasteko lagungarri diren ikasketa moduluak sortzeko
 - Bizi sozial arloko eragileak:
 - Euskal Moneta: bere kideak (enpresa eta merkatariak) afixaketa elebiduna plantan ezartzen laguntzeko jarduerarentzat (« Euskara misio kargudun lanpostua » proiektua).
 - Mintzalasai: BAB eremuan euskararen erabileraren sozializazioa sutatzen duen Mintzalasai egunen antolaketa sostengatzeko
 - UEU: Udako unibertsitateak euskaraz antolatzeagatik
 - Lehen haurtzaroko haurrei harrera euskaraz egiten dieten eragileak, euskarazko tailerrak antolatzeagatik kanpoko parte hartzaile bati dei eginez:
 - Luma Baionako haurtzaindegia: psikomotrizitate eta musikoterapia 2 tailer proiektuentzat
 - Ohakoa Miarrizteko haurtzaindegia: « soinu eta musika », « irakurketa eta ipuin » eta « kantu eta dantza » hiru tailer proiektuentzat

- **Euskara haien jardueretan integratu duten eragileei diru-laguntza:**
 - o Beren programazioan euskarazko eskaintza integratu duten eragileak: Iparla Baigura Komunikazioa (Mediabask), TVPI, Xibero telebista eta Mendililia irratia
- **Sortzen dituzten pedagogia eta komunikazio euskarrietan euskara integratuko duten eragileei diru-laguntza:**
 - o Du flocon à la vague (Elikadura, laborantza, eta osagarria mahai jokoa euskaraz sorkuntza proiektua), Gaia (pilota eskola eremuan hezkuntza proiektua), Kiribil (irakurketa eta idazketa tailer ludiko baten proiektua) eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (Dantza Sarean dispositibon irakasleen laguntza pedagogikoa euskaraz).
- **Euskararen erabilpena sustatzen duten tresnak sortzen eta eskuragarri ezartzen dituzten eragileeri diru-laguntza:**
 - o Mintzalasai: Besta giroan euskararen erabilpena sustatuko duen "kit"aren sortzeko
 - o Bizi: elkartegintzan euskara erabiltzeko aholkuak zerrendatuko dituen gida praktikoa bat sortzeko
- **Beren komunikazioan euskararen erabilpena garatzeko proiektua duten eragileeri diru-laguntza:**
 - o Euskal Moneta: laguntza mailakatua « itzulpen-komunikazioa » proiektuarentzat, sail horretan eragilearen autonomizatzeko helburuarekin
- **Lagunduak ez diren proiektuak:**
 - o Proiektu deialdiko araudiaren 2. artikuluari begira egokiak ez diren proiektuak : SASU Gogaide
 - o Proiektu deialdiako esleitze irizpideei begira egokitzen ez diren proiektuak (10. artikulua) edo hizkuntzarekiko lotura ez delako agertzen: Gema Cardenas, Joseba Martin Ayala, Bai euskarari ziurtagiria, Allez les mômes, Bi'arte, CPIE Littoral Basque, Erakats, Lurzaindia, Elirale
 - o Beste gisan finantza litezkeen proiektuak: Kolorez, Kimua, Mintzalasai, (BABko euskarazko jarduerak zerrendatzen dituen Web gune baten sorkuntza proiektua)
 - o Aitzineko urteetan eragileei zuzendu diru-laguntza mailakatua bukatzen delako (autonomizazio logika segituz): Jour de fête Compagnie.
- **Argitalpen ataleko proiektuak:**
 - o proiektuen sustapena honakoetan oinarritzen da:
 - argitalpena atalaren araudi berezituaren errespetuan
 - argitaratze proiektuentzat eta hizkuntzaren kalitateari dagokionez, Euskaltzaindiak karia horretara osatu lan-batzordeak eman abisua kontuan hartuta
 - o 31 proiektu sustatzen dira sustapen-lerroka:
 - **1. sustapen-lerroa, liburuen argitaratzea**, 25 proiektu:
 - Argitaratze proiektuei lotu diruztapena kontuan hartutako xahutzeen % 35ean mugatuz euskarazko liburuentzat (diruztapen maila horrek liburuen ekonomiaren printzipioak ukatu gabe): 17 liburu
 - Argitaratze proiektuei lotu diruztapena kontuan hartutako xahutzeen % 20an mugatuz liburu elebidunentzat: 8 liburu
 - **2. sustapen-lerroa, merkaturatze lanak**, 500€tan mugatua: 4 proiektu lagunduak
 - **3. sustapen-lerroa, animazio pedagogikoak**: kontuan hartutako xahutzeen %70ean mugatuta: 3 proiektu lagunduak